

ZIENTZIA ETA BERRIKUNTZA MINISTERIOAK UPV/EHU 2023an "JAKINTZA SORTZEKO PROIEKTUEN" DEIALDIAN EMANDAKO LAGUNTZEI LOTUTAKO IKERTZAILEAK PRESTATZEKO KONTRATAZIO APARTEKO DEIALDIA

2025eko MARTXOAREN 31ko BEHIN BETIKO EBAZPENA

UPV/EHUko Ikerketa Errektoreordearen 2025eko otsailaren 4ko ebazpenak, Ikerketa Zientifiko, Tekniko eta Berrikuntzako 2021-2023 Estatuko Planaren esparruan aurreikusten diren doktoratu aurreko kontratueterako laguntzen aparteko deialdia onartu zuen. 2025eko martxoaren 11an argitaratutako behin-behineko ebazpenari alegazioak aurkezteko epea amaitu eta ez denez alegaziorik jaso, Ikerketa Zuzendaritzak ebaluazio-batzorde bakoitzak egindako hautaketa berresten du. Hori dela eta, Ikerketa Errektoreordetzak honako hau agintzen du:

UPV/EHUren web orrian **ARGITARATZEA** doktoratu aurreko ikertzaileak prestatzeko laguntzak emateko behin betiko ebazpena, I. **ERANSKINEAN** aipatzen direnak.

Estatuko Ikerketa Agentziaren webgunean 2024ko abenduaren 4an argitaratutako **EZAGUTZA SORTZEKO PROIEKTUEN ETA PROIEKTU HORIEI LOTUTAKO DOKTORATU AURREKO IKERTZAILEAK PRESTATZEKO JARDUEREN 2023ko deialdiari dagozkion laguntzak emateko AGINDUAN** xedatutakoaren arabera, kontratuak formalizatzeko eta sailetan, institutuetan edo zentroetan sartzeko, gehienez ere 6 hilabeteko epea egongo da, EIAk argitalpen hori egin eta biharamunetik hasita.

Kontratuak 2025eko maiatzaren 1ean hasiko dira, salbu eta ikertzaile nagusiak eta prestatzen ari den ikertzaileak berariaz eskatzen badute geroago hasteko, betiere aurreko paragrafoan adierazitako epea betez.

Laguntzak emateko hasierako baldintzak eta epeak aldatzeko, organo emaileak baimena eman beharko du. Organo horrek egokitzen jotzen dituen txostenak eskatu ahal izango ditu eta emakidaren baldintzak aldatu ahal izango ditu ebazpen berri baten bidez.

Argitalpen honek, EHUren web orrian, 39/2015 Legearen 45. artikuluaaren arabera egindako jakinarazpenaren ondorioak izango ditu.

Administrazio-bidea amaitzen duen behin betiko ebazpen honen aurka, deialdiaren 8.4 artikuluan jasotako aurkaratze-bideak jarri ahal izango dira.

Leioan, 2025.eko martxoaren 31an.

IKERKUNTZAKO GIZA BALIABIDEEN ATALA
Ikerketarako Errektoreordetza